

«Iraganarekin dugun harremanak beti izan beharko luke iragan horren irudiaren azterketa bat, etenik gabeko berreraikitze bat»

Marta Llorenterekin solasean



Ianire de Andres Olabarria
Arkitekturaren lizentziatua eta Hiri-politikak,
Hiritartasuna eta Haurren Parte-hartzearen
aditua

Bidaltze data: 2019-06-28

Onartze data: 2019-07-04

Marta Llorente (Girona, 1957) arkitektoa izateaz gain, musika- eta pintura-ikasketak burutu ditu. 1992an doktoretza egin zuen Bartzelonako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (ETSAB), eta Konposizioko irakasle titularra da bertan. Eskolak ematen ditu Arkitekturaren eta Arteen Teorian, Hiriaren Antropologia ikasgaia sortu du, eta idazketa eta irakurketa uztartzen dituen tailerra ere gidatu du. 2015ean argitaratu zen *La Ciudad: Huellas en el Espacio Habitado* haren liburua.


Aldiri: Hasieratik hasi... La Ciudad: Huellas en el Espacio Habitado zure liburuaren sarreran diozu haren helburua dela «memoria finkatzea» eta «handik abiatzen saiatzea gure egungo bideak aukeratzeko». Zergatik da hain garrantzitsua memoria hori berreskuratzea? Galdu egin dugu harremana iraganarekin?

Marta Llorente: Iraganarekin harremana galtzeko joera izaten dugu egungo jendarteetan, edo behintzat iraganarekiko lotura mota bat, zeinak, datu historikoetan ez ezik, datu historiko horien gaineko hausnarketan eta kritikan ere oinarritu beharko lukeen. Alegia, iraganarekin dugun harremanak beti izan beharko luke iragan horren irudiaren azterketa bat, etenik gabeko berreraikitze bat. Baina, batez ere, ez dugu ahaztu behar iragana hor dagoela, eta habitatutako espazio baten azalaren azpian iraganari oraindik zentzua ematen dioten existentziaren geruzak ezkututzen direla, oraindik taupadaka daudenak batzuetan ahazten edo lepoa ematen dieten itxurakerien azpian. Habitatutako espazioak, lurra bera eta paisaia eta lurraldeak, etxeak eta hiriak kokatuta daude gure aurretik eraikinak eta herriak erabili dituztenek

utzitako arrastoen gainean, mundua antolatu eta munduari zentzua ematen dion begiradan: horretan ere historia dago.

A: Memoria historikoa oso presente dago gaur egun, baina oraindik asko kostatzen da kontakizun edo errelato hegemonikoa aldatzea eta behin mahai gaineratuta diskurtso ofizialean txertatzea aspaldi isilarazitako errealitateak. Norabide horretan, zer baliabide eskaintzen ditu historiak?

ML: Berez, errelato historiko batek egin dezakeen okerrik handiena da itxurakeria edo gezurra kontatu orain arte gertatutakoaren inguruan, baina boteredunak beti izan du gertakariak desitxuratzeko joera, berak baitu errelato hegemonikoa idazteko boterea ere. Hasteko, sekula ez dagoelako errelato bakarra, baizik eta gertaerak bizitzeko hainbat modu, eta uste dut guztiek izan behar luketela entzunak izateko eskubidea. Horrez gain, boteredunak errelatoa erabili ohi duelako bere burua berresteko, uste dut botere guztiek egin dutela hori, eta orain fase historiko batean gaude, zeinean gaitasuna eta ausardia ditugun ahots horien polifonia entzuteko, eta ez istorio ofizialen monodia. Askoz eskuzabaltasun handiagoa landu behar dugu diskurtsoak, memoriak eta errelatoak txertatzean, elkar osatu eta baztertzen ez dutenak, historiaren ikuspegi orokorragoa eta konplexuagoa osatzen dutenak. Nik polifonia hori ikusten dut pluraltasuna eta subjektibotasuna onartzeko benetako tresna moduan, baita iraganeko memoriaren ere, gaur egungo eztabaidan izan behar duen moduan adosteko zelako mundua nahi dugun eta zer baliabide erabiliko ditugun horretarako.



Irudiaren egilea ~
lanire de Andres Olabarria

A: Espazioa eraiki ahala sortzen da memoria, ala memoriak beste nonbait irauten du, formatatik haratago?

ML: Pentsatu nahiko nuke memoria beti bizirik dagoela, nolabait, sekretupean batzuetan, eta bestetan ikusgai. Baina ez da egia: memoria itzali egiten da, ez badugu zaintzen eta ez badiogu bizirauten laguntzen, ondoren, azaleratzeko. Erantzukizun bat da eta ahalegina eskatzen du: memoria gordetzeko ahalegina. Eraikitako eta bizitako espazioa pribilegiatua da zentzu horretan: haren materialtasunak ahalbidetzen duelako arrastoak era berezian gordetzea. Arkitekturak, etxetik hirira, adibidez. Egia da okupazio sistematikoak arrasto horiek ezkutatu ere egiten dituela: berez gordetzen ditu eta ezkutatu aldi berean. Gakoa da memoria horren iraunkortasunak irakurtzen jakitea, haren balioa adieraztea.

A: Nola bizi dira elkarrekin dimentsio ukiezina (memoria) eta ukigarria (espazioa)? Ala memoria ez da uste bezain ukiezina?

ML: Zaila da haiek elkarrekin bizitzea, ezin delako guztia gorde zentzu materialean, baina iraganeko zeinuak irakur ditzakegu eta benetako historia kolektiboa eraikiz gorde, berreskura ditzan. Memoriaren zati ukigarria monumentuaren gogortasunarekin uler dezakegu edo bizitako espazioan utzitako arrastoen sotiltasunarekin. Ezin diegu lorratz horiei betekotasuna eman modu materialean, baina, nolabait, arrasto haien balioa berreskura dezakegu. Forma material edo monumentu batzuk alde batera uzten ere ikasi behar dugu, garaiekin oinordetza ulertu eta beste modu batean gordetzeko, harrotasun gutxiagorekin agian, era sotilagoan: horrela, memoria hark formatatik haratago iraungo luke, baina tokiko ondorengo forma materialekin erlazioan. Gai izan beharko genuke birpentsatzeko unibertsalagoa eta sotilagoa den memoria horren materialtasuna eta zentzua. Adierazten utzi, nahi duguna esatera behartu beharrean. Espazioak mantentzen utzi, bere bidean aurrera: ezagutzera eman, baina inoiz inposatu gabe haren presentzia, hori monumentaltasun modu zaharkitua da.

A: Hiriek nola gordetzen dute memoria? Oinordetzan hartutako gaitasuna da? Noiztik?

ML: Izatez, denak dauka memoria: denboraren joanean pilatutako kokatzeak dira hiriak. Eta gure hiri europarrak ez bezala, batez ere, munduko beste leku batzuetako hiri berriek ere beren historia izango dute. Gutxi dira hiltzen diren hiriak, edo guztiz uzten dituztenak, historian adibide urriak ditugu. Denbora da hirian gehien bistaritzen den presentzia. Oso modu singularrean nabari da, adibidez, hiritrazaduretan: ulertu eta azaldu beharreko izan zenaren itzalak bezalakoak dira. Hiriaren hazkundea marraztuta dago planoan, baina prozesu bat da, ahalbidetu duena espazioak bata bestearen atzetik era askean sortzea eta iraganaren karga ere apur bat gainera kentzea. Hori adibide ona izango litzateke, baina, hain justu, balioan jartzeko historia ezagutu beharko genuke eta errespetatu, beharrezko eraldaketa ulertuta.

Inguru urbanoan memoria gordetzeko dugun modua ere etengabe aldatu da. Iraganen, polis grekoan, adibidez, monumentuak heroien oroigarriak dira, edo jainkoentzako opariak, baina ez dago joerarik eraikin zaharren iraunkortasun materiala gurtzeko, ahal bazen forma berriekin ordezkatzeko zituzten. Orain laburtzen zailak izango ziren ezberdintasunekin, Errenazimentuan hasi zen iraganeko egiturenganako gurtza, eta aurrerago sortuko da sekulako arkeologia-zientzia, baita zientzia historikoa ere, ilustrazioan. Erromantizismoak onetsi zuen hondakinen edertasuna eta denboraren joana adierazteko duten gaitasuna. Beranduago, arkitektura modernoa, adibidez, saiatu zen iraganaren gurtzatik urruntzen, eta arrastoetan presente mantentzeko gogorik gabeko formak proposatu ziren noizbehinka.

Iraganeko arrastoak ulertzeko modu haietatik hona, mahai gainean jarri eta berrikusi beharreko hainbat ildo sortu dira. Gaur egun badakigu hainbat kasutan monumentu eta arkeologia multzoak urardotu, berreraiki eta faltsutu dituztela, eta beste kasu batzuetan, suntsitu inongo begirunerik barik. Agian, hartzen ari garen joera da bere horretan uztea, denborak, irmotasunez, eman

dien hondatze-egoeran azal daitezzen besterik gabe. Uste dut kultura garaikideak iraute horien balioa birpentsatzen duela, eta egiaren alde egiten duela, edo sinetsi nahi nuke. Nire ustez, memoria-espazioak parke tematiko bihurtzea saihestu behar dugu, zintzotasuna irabazi bokantza goraturik gabe, eta irauteak azaltzen saiatu haietaz baliatu barik, baina baita espazioa birpentsatu eta berriztatu ere, partekatu ezin diren mezuetatik askatzeko. Gure bizimoduan bezala, ezin dugu guztia oroitu eta gorde, ezta ahaztu eta kontzientziarik gabe zokoratu ere. Muturreko modu horien mugetan gaude, nire ustez.

Historia eta arkeologia bereiztea ere beharrezkoa da, azken horrek, monumentaltasunaren, eraikin zaharren arrastoak berreskuratu eta balioan jartzen ditu. Iraganeko irauteen monumentuak egiten ditugu, baina egungo lengoaiari azaldu nahi duten monumentu berriak ere sortzen ditugu. Bizitako lekuak eta egun indarrean ez dauden funtzioak bete zituzten arkitekturak iraunarazteaz gain, memorialak ere eraikitzen ditugu, gorde ditzaten. Bi keinu ezberdin dira, nahiz eta nahasten diren, batzuetan arrastoak monumentutzat hartzen direlako kultura garaikidean.

A: Zure liburuan ibilbidea egiten duzu jatorrizko establezimenduetatik XX. mendean suntsitutako hiri europarretara. Hiria diseinatzean memoria lantzeko modua aldatu egin da?

ML: Lehen esandakoak azaltzen du pixka bat. Uste dut gaur egun ditugula, alde batetik, gero eta gehiago azaleratzen den iragana eta berdin saiatzen ari den memoria, eta, bestetik, memoriaren kultura, memoriaren beraren memoria bat, edo antzeko zerbait. Horrek erabakiak hartzea zailago jartzen digu: iraganak aukera asko eskaintzen dizkigulako eta memorian eragin duelako modu sistematikoan. Jada baditugu maneiatuak eta ordezkatuak izan diren irauteak, bai eta gorde nahi izan ez ditugun eta falta diren memoriak ere. Eta baditugu irautea nahi den iraganeko gertaerak gurtzen dituzten monumentuak. Horregatik, XX. mendeko guda izugarriek aldaketa planteatzen dute gertuko hirietan, eta Guda Zibila jasandako gure hirietan: aztarna edo monumentuez gain, zauri sakonak ditugu, latzak. Porroten eta bazterketen aztarnak, aurrekaririk gabeko suntsiketenak, hilobiraterik gabeko eta ohore handienekin jantzitako heriotzenak. Nik gerrak azaltzen ditut, hain justu, memoria latz eta gogorra dakartelako berekin. Nire liburua bukatu nahi izan nuen hondamendia erakutsiz, eta ez berreraikiz. Uste dudalako oraindik saiatzen ari garela jarraian datorren etapa hori arrazoitzen eta konpromiso historikora eramaten. Definitzeko dagoen jarduna da, nire ustez. Pentsatzen, ausardiaz eztabaidatzen eta aurrera begiratzen jarraitu beharko dugu. Justizia egin beharko litzateke, memoria baretu eta bidean aurrera egiteko injustiziaren kontzientziak geldiarazi gabe. Baina ezingo gara, ezta ere, aske izan gainean badaramagu memoriaren aldetik gaizki ebatzitako historiaren zama. Hori, gure herrialdean, zaila da. Baina zaila da munduko beste hainbat lekutan ere, gerrak jarraitzen dutelako, eta biolentziak, eta egunero daudelako espazioaren okupazio injustuak, zauriak egin eta espazioak ixten dituzten mugak idazten diren bezala. Hau jada ez da memoria historikoa, espazioan egiten diren markak baizik, orainaldi gordina eta gatazka, eta honek guztiak lotsaraziko

gaituen memoria utziko du, eta akaso, noizbait, oroimen horri aurre egin beharko diogu. Horretaz jabetzea aukera are garrantzitsuagoa da: espazioaren beraren partekatze justuagoa egitea eta biolentziatik erreskatatzea... baina, ez bairik gabe, hori beste kontu bat da.

A: Idazketaren eta errelato urbanoaren arteko erlazio estuari ere erreparatu diozu. Nolako da erlazio hori?

ML: Idazketa asmakizun tekniko bat da, eta ez da kasualitatea hiriaren asmakizun teknikoari lotuta azaltzea ere. Biek dute esanahi kultural bera, zeinak adierazten duen euren burua irudikatze gaitasuna zuten jendarteak zirela, euren pentsamenduaren eta ekintzen memoria utzi nahi zutenak. Zentzua eta elkarbizitza partekatzea eta arrastoa uztea, uste dut ekintza sinkronikoak direla, elkar osatzen dutenak eta batera doazenak. Eta, oraindik ere, hiriak diren bizikidetzak eta funtzio askotariko esparru horietan bizitzen setatuta jarraitzen badugu, erakarpen-indar hori munduko txoko guztietan senti baitaiteke, izango da ulertzen jarraitzen dugulako merezi duela elkarbizitza eta kultura partekatu forma horiek gordetzea. Etorkizunera mezuak bidaltzen ditugu, eta gure oraina eratzten dugu idatzitako hitzekin, nahiz eta euskarriak aldatu. Argi eta garbi aukeratzen dugu irautea, gordetzea, arrastoa uztea. Baztertu ez dugun jokabidea da. Aldatu dira gure idazketaren eritmoak, bizkortu baitira, eta aldatu dira euskarriak, baina idazketen lorratzean jarraitzen dugu, forma urbano konplexuetan irudikatzen diren komunitateetan bizitzen jarraitzen dugun moduan.

A: Zein da oinordetzan hartu dugun memoria-espazioa erlazioa?

ML: Lehen azaldu dut pixka bat. Oinordetzan hartutako memoria-espazioa erlazioa oso konplexua da, soinean daramagulako aldaketaz, asmatze eta akatsez betetako historia luze eta konplexua. Gure historiak era bikoitzean arduratzen gaitu: egin dugunaren eta izan garenaren historiak eta historia hori nola erabili dugun. Badirudi bi tradizioei erantzuna eman behar diegula, eta hori zaila da. Horregatik uste dut —eta badakit arriskutsua dela esatea— iraganaren zamatik eta iraganak memoria historikoa lantzean egindako akatsen zamatik askatu behar dugula. Ez dugu dardar egin behar faltsukeriak adierazi edo historiaren zati bat inposatzen duten monumentuak eraisteko aukeraren aurrean. Lehen esan bezala, bidean goaz etorkizun aske baterantz, arrastoak utziz eta iraganeko arrastoak zainduz, inposaketarik gabe. Ona litzateke ikastea askotariko errelato formak posible liratekeen espazio bat partekatzen, non inposatutako memoriak bere presentziarekin ez lukeen inor minduko.

===

Erredakzioan itzulia